

KARMELE MUÑOA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2009ko maiatzaren 6an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**9.- 2009-KO BASERRIETAKO BIDEEN EGOKITZEA (LURDEIA, URKIZARRE ETA ARENETIK BEITXIRA).**

**Xedea**

2009ko baserrietako bideen egokitzea (Lurdeia, Urkizarre eta Arenetik Beitxira).

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2009ko apirilaren 2an, udal honetako Kontabilidade Sailak, lan honek egiteko kontsignazioaren baimena emon eban.

Bigarrena: Prozedura negoziatuan parte hartzeko, 3 enpresari bialdu jaken gonbidapena: PABISA, ASFALTADOS OLARRA SA, eta ASFALTOS URIBE.

Hirugarrena: Emondako epe barruan PABISA, eta ASFALTADOS OLARRA SA, enpresen eskaintzak jaso dira.

**Argudioak**

Lehenengoa: Honako honeek izan dira enpresa horreek egindako eskaintzak:

- PABISA  
Proposamen ekonomikoa: 200.977,75 €, BEZa barne
- ASFALTADOS OLARRA SA  
Proposamen ekonomikoa: 200.000,00 €, BEZa barne

Bigarrena: 2009ko apirilaren 27an Jon Goitia Leniz arkitektoak txostena emon eban. Bertan, ASFALTADOS OLARRA SA enpreari esleitzea jakinarazoten dau.

**Erabagia**

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: 2009. urteko baserrietako bideak egokitzeko (Lurdeia, Urkizarre eta Aretetik Beitxira) kontratua ASFALTADOS OLARRA SA enpreseari esleitzea, 200.000,00 €-an (BEZa barne).

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2009ko maiatzaren 11n.

ONETSIA  
ALKATEA